

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteartea, 2011ko abenduaren 20a. VIII. urtea. 2.327. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Ekitaldi ugari egin dituzte euskal presoen eskubideen alde

Bilduko hautetsiek baraualdiak egin dituzte, estropadak ere izan dira, Tolosan, eta mus txapelketa ere egin zuten, Villabonan **o6**



Estropadak egin dituzte Tolosan, Egin Dezagun Bidearekin bat eginez. E.M.



HITZA

→ **Ibarrako sokatira taldea garaile.** Ezustekoa eman du Ibarrako nesken sokatirako A taldeak goma gaineko Euskal Herriko Txapelketan, eta txapela janztea lortu du. 260 kilotan kitarako lehia jokatu zuten Ibarra A eta Badaiotz B taldeek, eta azken bi tiraldiak irabazi zituzten ibartarrek. **o7**

Udalarekin euskaraz komunikatzera deitu dituzte tolosarrak

Abenduaren 3ko adierazpen instituzionalean zehaztu bezala, herritarrengan euskararen erabilera sustatuko du udalak, eta horretarako kanpaina bat abian jarri berri du **o2**

Zeberriok «finala oso gogorra» izan dela dio, eta Ionen lana goraipatu du

Elduaindarrak eta Ionek 40-38 irabazi zuten erremonte txapelketako finala; zazpigarren txapela jantzi du erremontistak **o7**

Ero Etxeko krosaren 25. urteurrena, ekitaldiz beteta

Urteurren borobila izanik, elkarte tolosarreko kideek egitarau berezia prestatu dute haur eta gaztetxoei begira: txotxongilo emanaldia, mendi ibilaldia, hitzaldia... **o2**

ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA
KONTSULTA MEDIKU-ESTETIKOA

Maite

Leitza kalea z/g • Tolosa • 943 67 09 30

Opari bat egin behar duzu?

Maite estetika zentro eta lurrindegian
lagundu eta aholkatuko zaitugu.

Lurrinak, tratamendu paketeak,
zeta eta artilezko zapigintza, bitxiak, osagarriak...





Aurkezpenean, Tolosako Udaleko Pello Etxabe eta Ero Etxeko antolatzaileak izan ziren. I. URKIZU

Hogeitabost urteko krosaren historia gogora ekarriko du Ero Etxek

Haur eta gaztetxoek begira egitarau berezia antolatu dute datorren hilabete hasierarako

Itzea Urkizu

Txotxongilo ikuskizuna, mendi irteera nahiz olinpiar kirolarien hitzaldia izango dira urtarilaren, Ero Etxe elkarteak antolatzen duen krosaren 25. urteurrenaren harira.

Urteroko krosa, urtarilaren 22an izango da, baina aurreko astean kirolaren inguruko hainbat jarduerak izango dira. «25 zenbaki borobila da, eta beraz, ekitaldi borobilak antolatu ditugu», azaldu du Ero Etxeko Isitxo Larrañaga ordezkariek. Bide honetan, haur eta gazteei begirako jarduerak antolatu ditu elkarte tolosarrak, herri krosa bera bezalaxe.

Enamorirte txotxongilo emanaldiarekin hasiko da egitarau berezia, datorren urtarilaren

14an. 4 urtetik 8 urtera bitarteko haurrei zuzenduriko ikuskizuna Topic eraikineko aretoan izango da, 17:00etan, Valentziako Ptv-clown taldearen eskutik.

Hurrengo egunean, berriz, mendi irteera egingo dute, 09:00etan Trianguloa plazatik abiatuta. Antolatzaileek azaldu dutenez, igande goizetan mendira joateko ohitura pixkanaka galtzen ari da, eta usadioa berreskuratzeko bidean antolatu dute jarduerak, 8 urtetik gorako edozein herritarrentzat.

Krosaren astean bertan ere izango da tolosar gazteak kirol mundura hurbiltzeko jarduerarik. Besteak beste, urtarilaren 18an, hiru olinpiar kirolarik hitzaldia eskainiko dute Topic zentroan, Iñigo Asensio moderatzaile dutela. Mikel Odriozola korrikalaria, Ekaitz Saies piraguita eta Oiana Blanco judoka izango dira kirolariak.

Egitarauaren aurkezpenean, Ero Etxe elkarteak ordezkariek dieten babesleak nahiz Tolosako

Udala, gogora ekarri nahi izan zituzten. Honen harira, urtarilaren 19an, krosako laguntzaileei eskerrak emateko ekitaldi ofiziala egingo dute; opari banaketa eta luntxa ere izango dira.

Azkenik, urtarilaren 21ean, krosaren bezperan, erraldi eta buruhandiak kalez kale ibiliko dira, Ero Etxe txarangarekin batera, herria girotzeko helburuz, 12:00etatik aurrera.

Aipatzekoa da, aste osoan zehar 25 urte hauetan krosean ateratako argazkien erakusketa ikusgai izango dela kultur etxean.

25. urtez korrika

Azken mende laurdenean 15.000 korrikalari inguruk parte hartu dute Ero Etxeko krosean. Hauetako askoren artean, gainera, kirolzaletasuna piztu du lasterketak, eta antolatzaileek «oso harro» azaldu dute euren burua, kirola sustatzea baita helburu nagusietako bat.

Ero Etxe elkarteak, urteroko karteletz gain, 25 urteetan kategoria bakoitzeko lehen hiru sailkatuen izen-abizen guztiak biltzen dituen liburuxka berezia prestatu du, egitarauarekin batera. Krosean, hala ere, parte hartzaile guztientzat izaten da oroigarria, eta aurtengo lasterketarako trofeo bereziak prestatu dituzte. Horrez gain, opari asko zozkatuko dituztela ere nabarmendu dute antolatzaileek.

Izena eman nahi duten gaztetxoek, euren ikastetxeen bidez egin beharko dute; bestela, krosa hasi baino ordu bete lehenago ere izango dute aukera.

• tolosa@hitza.info

Abian da udalarekin ere euskaraz aritzeko kanpaina

Euskaraz erabat ondo ez dakitenak ere hitz egitera bultzatu nahi ditu udalak, «arrituz ikasten baita»

I. Urkizu

Abenduaren 3ko Euskararen Egunean adierazpen instituzionalen azaldu bezala, euskararen erabilera izango da udalaren helbururik behinena. Honen harira, *Udalarekin euskaraz, zure eskubidea delako* lelopean, kanpaina jarri dute abian.

Tolosarren %65a euskalduna da, eta %21a, berriz, euskaraz ulertzeko gai da. Ikastetxe guztietan, gainera, D ereduan aritzen dira Tolosako gazteak; «etorkizuna euskaraz dator beraz», udal ordezkariek arabera. Bide beretik, «Tolosako Udaleko ia langile guztiak euskaldunak» direla nabarmendu zuen Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeko Iñaki Irazabalbeitiak: «Beraz, jendea bultzatu behar dugu, udalarekin dituen harremanetan euskara erabiltzera».

Kanpaina honetan, gogoan izan dituzte euskara ikasten ari

diren herritarrek, edo hizketarakoan hain ondo moldatzen ez direnak: «Garranzitsuenak ez da ondo egitea; arituz, eginez, jardunez ikasten da, ordea», dio Irazabalbeitiak. Horrela beraz, euskaraz hitz egitean askok sentitzen duten beldur hori eginez galduko dutela azpimarratu du udalak.

Kontzientzia piztu nahian

Kanpaina zabaltzeko, Tolosako Udalak hainbat kartel itsatsiko ditu herriko kaleetan barrena, eta eskualdeko komunikabideetan ere iragarriko dute euskararen erabilera sustatzeko ekimen hau.

Horrela, kontzientzia kanpaina hau hiru alditan zabalduko dute herritarren artean: aste honetan bertan jarriko dituzte lehen kartelak; Eguberrietako oporetan bigarren fasea izango da, eta azkenik, 2012. urte hasieran zabalduko dute kanpainaren leloa herritarren artean.

Miren Urkola zinegotziak, kanpainaren aurkezpenean, Euskararen Egunerako aho batez onartua izan zen adierazpen instituzionala irakurri zuen berriro, eta kanpainaren hariari tiraz, «ari den hiltzuna herdoilik ez zaiola aterako» nabarmendu zuen.

Lagun bat atxilotu dute borroka jendetsu batean

Igandean goizeko bostetan izan zen istilua Tolosako Gorriti plazan; 22 urteko tolosarra da atxilotua

Erredakzioa

Ertzaintzak 22 urteko gizona bat atxilotu zuen herenegun, goizeko bostak aldera Tolosako Gorriti plazan izandako borroka jendetsu batean, ustez lesioak sortu zituen eraso bat egiteagatik. Atxilotu eta gero epailearen esku utzi zuten tolosarra, eta herenegun bertan espeteratu zuten. Atxilotuak aurrekari polizialetan ditu.

Herrizaingo Sailak esandakoa arabera, istilua goizeko bostak aldera hasi ziren. Ertzaintzak deia jaso zuen Gorriti plaza ingu-

ruan borroka jendetsu bat zegoela, eta pertsona batek zauri larria zuela esanaz. Ertzainek, hara iristeko, lepotik odol jario handia zuen gizona zela ikusi zuten, eta inguruan zegoen beste gizona bat zela erasotzailea zehaztu ahal izan zuten. Beste patruila batzuk joan ziren plazara, istiluek jarraitzen zutelako, eta bi pertsona eraman zituzten Tolosako osasun zentro batera, horieta bat aurretik aipatutako zauritua.

Herrizaingo Sailak jakinarazi duenez, ustezko erasotzailea eta bere lagun bat polizia etxera eraman zituzten ertzainek. Ustezko erasotzailea atxilotu egin zuten, eta laguna, aske utzi ondoren, osasun zentro batera eraman zuten anbulantzia, borrokan jasotako kolpeek sortutako zaurienatik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Txori euskaldunak



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga
Biologoa

Euskara benetan hizkuntza harrigarria dela ezin uka, nahiz eta urteak eman ber-
rau hitz egiten, noizean behin bere sekretu txikiren bat erakusten digu. Neure bizi guztirako ikasketa hauetan zehar, txorien euskal izenen sekretu bat jakin nuen orain urte asko, eta zin egin nuen noizbait egunkari batean zutabe bat idaztera iristean, sekretutxo hau irakurleekin partekatuko nuela.

Etxeko balkoira irteten garenean oso arrunta da zozo bat inguruan zalapartaka ikustea. Emea kolore marroi arruntekoa den heinean, arra guztiz beltza eta moko laranja bizikoa da. Zozoaren kantua «xo-xo-xo...» modukoa da. Ze kasualitatea: euskaldunok «xoxoa» deitzen diogu txori honi.

Bada, beste hegazti txiki bat pitxartxar arrunta deritzona, gaztelaz agian *taravilla común* izenez ezagutuko duzue. Txori txikia da, ibai edo lakuen inguruan aurkitzen da, batez ere, sastrakak edo zuhaixkak dauden lekuetan egiten du habia. Espezie honetan ere emea marroi kolore arruntekoa da, baina arrak buru beltza du eta lepoalde lerro zuri batez apaindurik dauka, bularralde berriz marroi bizia delarik. Pitxartxar arruntaren kantua nahiko berezia da, «piii!» luze eta fin baten ostean, bi aldiz «txar-txar!» lehor bat egiten du. Bai... pitxar-

txar arruntak, «piii-txar-txar!» egiten du.

Baso batetik bagoaz isiltasunean, zuhaitz adarretik barrena zein sastraketan txori txiki luzanga bat topatu ahal dugu. Marroi berdea du burua eta bizkar gaina, baina laranja-horixka bular eta lepoa. Gaztelaz *mosquitero común* deritzo, baina euskaldunok txioa deitzen diogu. Txori honek «txiii-txiii!» egiten du.

Txingudi inguruko hezegunetara bagoaz, txori euskaldun bat topa dezakegu hemen ere. Gaztelaz *zarapito* deitzen zaio, baina euskaraz izen politagoa du: kurlintxa. Kurlintxak marroi kolorekoa du bizkara, zurizta sabelaldea, moko luzea eta mehea behe-rantza okertua. Kurlintxak ere badaki euskaraz, bere kantua «kur-lili!» moduko bat baita.

Azken adibidea agian ezagunena dugu eta ez du azalpen askoren beharrik: nola egiten du kukuak?

Baina gure hizkuntza maiteak badiu akatsak ere, batez ere hegaztien itxurarekin. Beltxarga arrunta ez da beltza, zuria baizik. Uroilo arrunta uretan ibiltzen den arren ez dauka oiloarekin zerikusirik, eta kaio-hankahorien hankak laranja dira.

Hala ere, kopeta zuriak, kopeta zuria dauka; antxeta moko-gorriak moko gorri-gorria du; arrano beltza oso iluna da; moko-erak oso moko okerra du; eta moko zabala moko zabalak. Arrano sugezalea sarritan ikusi da suge bat ahoan duela, apo-hontzak berriz zapo zahar baten aurregia du, basoilo arrunta basoan bizi da eta murgil-handia oso murgilari ona da.

Agidanez, euskaldunen eta txorien arteko erlazioa oso estua izan da beti. Adibide gehiagorik baduzue, eskertuko nizueke bioaniztasunetik@hotmail.com edo bioaniztasunetik.com-era idaztea.



Laskorain Ikastolako ordezkariek eta CDan zein DVDan parte hartu dutenak, proiektuaren aurkezpenean. I. GARCIA

Laskorain Ikastolako Lask abesbatzak 'Yau Samayaye' Cda eta DVDa atera du. Hezkuntza komunitate osoak parte hartu duela nabarmendu dute.

Amari deika, abestuz

Imanol Garcia

Hamabost urte igaro dira Laskorain ikastolako Lask abesbatza sortu zenetik, eta denbora horretan jasotako emaitzetako bat aurkeztu berri dute: *Yau samayaye* diskoa eta DVDa.

Ikastolako jaialdi batean sortu zen ideia, Juantxo Zeberio diskoaren zuzendari artistikoak eta ikastolako gurasoak zehaztu duenez: «Abesbatzak parte hartu zuen jaialdi horretan eta, kezkatuta, ikusi nuen taldeko 60 inguruti bi mutil bakarrik zeudela taldean. Nola bait mutilak abesbatza nola sartu zitekeen pentsatzen hasi ginen, eta disko bat egitea pentsatu genuen».

Mutilak abesbatzara erakartzeaz gain, beste helburua ikas komunitate guztiak proiektuan parte hartzea izan da. «Oso harro gaude egindako lanarekin, eta lortu dugun partaidetza eta sinbiosiarekin», gaineratu du Zeberio. «Krisi ekonomikoaren garaian, ideia krisirik ez dagoela ikusi da. Laskorain ikastolatik ur tanta bat sortu da, ur tanta berezia, eta ozeanoa ur tantekin betetzen da».

Hain justu, Jone Urteaga ikastolako zuzendariak bat egin du hezkuntza komunitatearen partaidetza nabarmentzerakoan: «Ikastolaren izenean, oso harro sentitzen gara ikasle, irakasle eta gurasoek izan duten parte hartzearekin».

Iragarki laburrak

ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Tolosan pisua alokatzen da. Interesatuak deitu 635 706843 telefono zenbakira.

Lanak bi urte iraun ditu eta presarik gabe egindakoa izan dela azaldu du Naiara Mintegia Lask abesbatzako zuzendariak. Proiektuaren beste helburua azaldu du Mintegiagak: «Bide eginez ikastea. Nik asko ikasi dut diskoak eginez».

Leire Elola abesbatzako kideak esan duenez, «oso pozik hartu genuen diskoa egiteko aukera, eta lan asko suposatu badu ere, oso harro gaude lortu dugun emaitzarekin». Elolak gaineratu duenez, proiektua egiterakoan beste kultura bat ezagutzeko aukera eman die eta abesbatzako kideen arteko harremana sendotu egin da.

Estilo anitzekoa

Hamar abestik osatzen dute diskoa, hainbat hizkuntzetan: euskaraz, serbiarrez, ingelesez, wolofez... Estilo anitzekoak direla ere esan du abesbatzako zuzendariak: «Ken 7 eta Cold Play bezalako taldeen abestiak daude, Egu-berrietako kantak, ... Moldaketa asko daude, abesti alaiak eta erritmikoak egiteko».

Diskoari izena ematen dion abestia, *Yau samayaye*, Juantxo Zeberioak konposatutako da. «Seme-alabak amari deika ari zaioenean esaten duen hitzak dira. Herrinari buruzko abes-

tia egin nahi genuen, afrikar ukituarekin, eta Nene Diob senegaldarrarekin batera idatzi genituen hitzak».

Diskoarekin batera, DVD bat ere egin dute Lask abesbatzakoek. Bertan kalean CDak saltzen dituen Baba Lo senegaldarra da protagonista. Beñat Urkola abesbatzako kideak azaldu duenez, «Babaren egunerokotasuna azaltzen da bideoan. Lan horrekin mezu bat azaldu nahi izan dugu: esfortzu bat egin behar dugula etorkinei gure artean behar bezalako harrera egiteko». Bideo egin izana oso garrantzitsua dela esan du Baba Lok.

Zuzenean, diskoaren abestiak entzuteko aukera izango da, bihar, Sakramentinoen elizan, Lask abesbatzaren Egu-berrietako kontzertuan. Ikasle txikiak (8-9 urte) eta handiak (10-14 urte) taldeak ariko dira kantari Naiara Mintegiaren zuzendaritzapean, Leire Alberdi eta Ana Iparragirreren laguntzarekin pianoan.

CDa eta DVDa hainbat lekutan eskuratu daiteke, hamar eurotan: ikastolan bertan, hilaren 26tik aurrera kultur etxean egingo den merkatu txikian, musika dendetan edo abesbatzako partaideren batekin harremanetan jarrita.

Irudia • Ugane



IKATZA AHT-KOENTZAT

ELA sindikatuak AHTko eraikuntza dauden «segurtasun neurri kaskarrak» salatu zituen, atzo, Ugane auzoko obretan. Horretarako, Olentzerok zozorrotuta joan ziren, eta ikatza utzi zieten Eusko Trenbide Sareari eta Eusko Jaurlaritzari, «eraikuntza honetan ematen diren lan baldintza penagarrien errudunak izateagatik». E.M.

sarrerak

HITZAK harpidetunentzat
emanaldi bakoitzerako 2 sarrera pare ditu

Poxpolo eta Konpainia

Abenduak 28 • Asteazkena
16:30ean eta 19:00etan
Tolosako Leidorren

Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95**

Alkiza



FRONTOIA BERRITUTA

Alkizako heritarrek auzolanean berritu dute herriko pilotalekua, eta larunbatean berriro agurratu zuten. Frontoia estreinatzen lehenak txikiak izan ziren, eta alkatearen aguraren aurretik, aurrekua dantzatu zuten. Jarraian, jailetako betetako finalaren errebantsoa jokatu zuten. Peñagarkano eta Zubeldia bertsolariak izan ziren botilerio. L. MAIZ

Asteasu



JOSTAILUAK TRUKATUTA

Asteasuko I. Jostailuen Truke Eguna izan zen pilotalekuan, larunbatean. Ebetik eraman zituzten jostailuak salikatu zituzten lehenengo. Hiru mahai ezberdinetan jarri zituzten. Ondoren, haurrek banan-banan trukatu egin zuten. L. MAIZ



Tolosa



ATERKIA LAGUN HARTUTA AZOKARA

Tolosako Gabonetako Azoka Berezia izan da asteburua. Eguraldi traketisa egin bazuen ere, aterkia hartu eta jende asko animatu zen Tolosara joaten. Aurten goa, Gabonetako Azoka Berezia 20. edizioa izan da. Era guztietako jakiak, animak, landareak eta bitxiak zeuden postuetan banatuta. Azokaren barruan Odolki lehiaketa izan zen. Irabazlea, Orioko Kepa Loidi suertatu zen, eta bigarren sailkatua berriz, Beasaingo Julian Mujika izan zen. MARTI SANGASTIARI ETX. MAIZ

Alegia



BELAUNALDI EZBERDINEN FESTA

Alegiako Garterbearen 24. urteurrena ospatu zuten larunbatean, eta belaunaldi ezberdinek elkartu ziren. Babarrunajateak egin zuten Garterbearen, eta ondoren, mus txapelketa. Iluntzetik aurrera, musikaren txanda izan zen. Manillares Iturriaga taldeak jo zuten, eta Dj ezberdinek jarri zuten musika. L. MAIZ

Zizurkil



KIROL ASTEBURU OPAROA BUKATU DA

Zizurkil asteburuan kirola izan da nagusi. Kirol ezberdinez gozatzeko aukera izan da: skatea, futbola, halterofilia... Larunbat gauean Gau Krosa egin zuten, eta igandean jokatu ziren Zizurkilgo pilota txapelketako finalak. Armaliak jendez bete ziren, giro ezin hobea sortuz. SARA GAZTELU

Abaltzisketa



LANGILEEK PROTESTA EGIN DUTE

Eguneraz eraikitza enpresako langileek protesta egin zuten Abaltzisketan. 24 langile lanik gabe geratu direla salatu zuten. Eta «bi aparteko paga, eta ordu osagarri batzuk» kobratu gabe dituztela. Abiadura handiko trenaren obretan ari zirelan leian, Legorreta UTE zatian batzuk, eta besteak, Antzuolakoan. L. MAIZ

Ibarra



LEHIAKETAKO KOMIKI SARITUAK

Galtzakomik komiki lehiaketako sariak banatu zituzte. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatzen du txapelketa, eta Ibarra Udalak izaten du bidelagun. Lepo bete zen kultur etxeko aretoa sari banaketara ikusteko. 12 urtetik beherakoek saillean Aitor Sanchezek eskuratu zuen lehen saria Planetaz planeta komikiarekin; 12 eta 18 urte bitartekoek Aitor Sanchezek eskuratu zuen bigarren saria; 18 eta 24 urte bitartekoek Aitor Sanchezek eskuratu zuen hirugarren saria; 24 eta 30 urte bitartekoek Aitor Sanchezek eskuratu zuen laugarren saria; 30 eta 36 urte bitartekoek Aitor Sanchezek eskuratu zuen bostgarren saria; 36 eta 42 urte bitartekoek Aitor Sanchezek eskuratu zuen seigarren saria; 42 eta 48 urte bitartekoek Aitor Sanchezek eskuratu zuen zazargarren saria; 48 eta 54 urte bitartekoek Aitor Sanchezek eskuratu zuen laugarren saria; 54 eta 60 urte bitartekoek Aitor Sanchezek eskuratu zuen bostgarren saria; 60 eta 66 urte bitartekoek Aitor Sanchezek eskuratu zuen seigarren saria; 66 eta 72 urte bitartekoek Aitor Sanchezek eskuratu zuen zazargarren saria; 72 eta 78 urte bitartekoek Aitor Sanchezek eskuratu zuen laugarren saria; 78 eta 84 urte bitartekoek Aitor Sanchezek eskuratu zuen bostgarren saria; 84 eta 90 urte bitartekoek Aitor Sanchezek eskuratu zuen seigarren saria; 90 eta 96 urte bitartekoek Aitor Sanchezek eskuratu zuen zazargarren saria; 96 eta 102 urte bitartekoek Aitor Sanchezek eskuratu zuen laugarren saria; 102 eta 108 urte bitartekoek Aitor Sanchezek eskuratu zuen bostgarren saria; 108 eta 114 urte bitartekoek Aitor Sanchezek eskuratu zuen seigarren saria; 114 eta 120 urte bitartekoek Aitor Sanchezek eskuratu zuen zazargarren saria. L. MAIZ

Larraul



IRAZU SEIGARREN

Udaberrian hasi zen Gpuntua txapelketa amaierara iritsi da. Ilurbe jendez bete zen, eta Aitor Sarriegi jantzi zuen txapelak. Jesus Mari Irazu seigarren postua eskuratu zuen. Buruz-burukora, Aitor Sarriegi eta Behat Gaztelu-niz egin zuten. Musika eta dantza ere izan zen. SARA GAZTELU

Tolosa



TRUKERAKO AUKERA

Denbora Bankuak eta Tolosako Berdintasun sailak Truke Eguna antolatu zuten igandera, Zerkasian. Material ezberdinek trukatzeko gain, esperientziak ere trukatu zituzten. Esperientzia ekonomiko alternatiboel buruz hitz egin zuten. Musika eta dantza ere izan zen. SARA GAZTELU

Tolosa



SENEGAL GERTUAGO

Etorkinen Nazioarteko Eguna izan zen igandean, eta hurren harira Tolosako Samaniego eskolan ekitaldiak antolatu zituzten. Otsiralean, eskolara joan ziren Sergine Fallou Diagne eta Sergine Mbacke Lo, Senegaleko musika, dantza eta abestiak erakustera. MARTI SANGASTIARI ETX. MAIZ

Presoen etxeratzea eskatu du Egin Dezagun Bideak

Lau puntuko aldarrikapena egin du; besteak beste, «bizi arteko doktrina» indargabetzea

Imanol Garcia

Tolosako Egin Dezagun Bidea ekimenaren barruan, lau puntu aldarrikatu dituzte eragile eta norbanakoek. Alde batetik «eskubide guztiakin, euskal presoak Euskal Herrira» ekartzea aldarrikatu dute. Bestetik, kondena bete dituzten zein 3/4ak bete dituzten presoak kalera ateratzea exijitu dute, eta «bizi arteko doktrina» indargabetzea. Horrez gain, gaitasun larriak dituzten presoak



Zizurkildarrek argazkia atera dute asteburuan, euskal preso eta iheslarien eskubideen alde. HITZA

kaleratzeko eskatu dute. Azken puntuan, isolamenduekin eta barkartzearekin amaitzeko exijitu dute.

300 lagunek eman diote babes a aldarrikapenari, horien artean Jexus Martinez sendagile nutrizionistak, Jonan Fernandez Baketikoko zuzendariak, Joxe Mari Iturralde idazleak, Kike Amona-

rriz soziolinguistak, Aitor Eldua kazetariak, edota May Gorostiaga antzerkigileak.

Larunbatean egin zuten euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko agerraldia. Testua Josebe Iturrioz Tolosako Udaleko berdintasun teknikariak irakurri zuen. Berarekin batera hainbat eragileren ordezkariak eta norba-

nakoak izan ziren, presoen sendeekin batera. Besteak beste, bertan izan ziren Aiora Zulaika *Pirritx*, Javi Arana medikua edota Ibai Iriarte alkatea. «Orain, bidea egiteko tenorean da gure herria», esan zuten agerraldian. «Aldi berria zabalduz, presoen sende eta lagunak lan horretan sekula gehiago bakarrik izan

ez daitezten. Guztion eskutik, egin dezagun bidea».

Manifestaziorako deialdia

Larunbatean bertan estropadak izan ziren Oria ibaian Egin Dezagun Bidea ekimenaren barruan. Agerraldian hurrengo ekitaldien berri eman zuten. «Indarrak batzea ezinbestekoa» dela adierazi zuten eta hilaren 24ean egingo den manifestaziorako deia luzatu zuten. 18:45ean abiatuko da Trianguloa plazatik. Era berean, urtarrilaren 7an Bilbon izango den manifestazioan parte hartzeko deia egin zuten.

Beste zenbait herritan ere egin ziren ekimenak Egin Dezagun Bidearen barruan. Hala, Zizurkilan zein Altzon herri argazkia atera zuten.

Irudia » Amasa-Villabona, Tolosa eta Ibarra



BILDUKO HAUTETSIEK, 24 ORDUKO BARAULDIA

Amasa-Villabonako, Tolosako eta Ibarako hautetsiak (argazkietan ezkeretik eskuinera), besteak beste, 24 orduko barauldia egin zuten euskal preso eta ihesla-

rien eskubideak errespetatuak izan daitezten eskatzeko. Ostiral eguerdian herri horietan elkarretaratzea egin zuten, *Eskubide guztiakin euskal presoak Euskal Herrira*

eta *Euskal preso eta iheslari politikoak etxera!* lelopean. Aipatu herrietan euskal presoen eskubideen aldeko mozioak ere onartu dituzte. A. IMAZ/E. MAIZ/R. CALVO

Irudia » Villabona



MUS TXAPELKETA ETA ARGAZKI RALLYA-REKIN, «GUSTURA»

Villabonan ere asteburuan egin dituzte Egin Dezagun Bidea ekimenaren barruan ekitaldiak. Esaterako, 32 bikotek parte hartu zuten larunbatean egindako Mus Txapelketan. Igandean, eguraldiak ez bazuen lagundu

ere, argazki rallyan bederatzi lagun aritu ziren. Argazki-lariak igandean ateratako argazkietatik hiru aukeratu behar dituzte, eta horiek hilaren 28rako aurkeztu behar dituzte, udal bulegoan, moldaketarik egin gabe. Era-

kusketa martxoaren 19tik 25era egingo da aljibearen, eta azken egunean sari banaketa egingo da leku berdinean. Antolatzaileak, bai mus txapelketarekin bai argazki rallyarekin «gustura» azaldu dira. M.G.

↓ **Kirol emaitzak****PILOTA****ERREMONTEA****Binakako Txapelketa****Finala**

Zeberio II-Ion	40
Lizaso-Juaristi	38

ESKU PILOTA**Binakako Txapelketa****Ligaxka**

Irujo-Barriola-	22
Titin-Merino II	17

Bengoetxea-Apraiz	22
Arretxe II-Begino	17

SOKATIRA**Euskal Herriko 4X4 Goma****Gaineko Txapelketa****Finala****260 kilotan**

1. Ibarra A	6p
2. Badaiotz B	5p
3. Sakana	4p
4. Badaiotz A	3p
5. Ibarra B	2p
6. Berriozar	pl

300 kilotan

1. Amaur A	6p
2. Amaur B	5p
3. Abadiño B	4p
4. Sokarri B	3p
5. Ibarra A	2p
6. Sokarri A	pl

ARETO FUTBOLA**BIGARREN B MAILA****11. Jardunaldia**

Laskorain Ikastola -Alcañiz	4-7
-----------------------------	-----

Saillkapena

1. Ebrosala	26p.
2. La Bastida Atenea	20p.
3. La Bastida Atenea	20p.
11. Laskorain Ikastola	11p.

HIRUGARREN MAILA**13. jardunaldia****Gora-Egintza Trasportes**

Lakunza	2-3
Aurrera Vitoria-Ibarra	7-3

Saillkapena

1. Sestao	30p.
2. Ibarra	30p.
3. Aurrera Vitoria	25p.
11. Egintza Transportes	
Lakuntza	15p.

EUSKAL LIGA**13. jardunaldia****Eskoriatza-Tolosala Hirukide**

Ikastetxea	3-4
Etxebarrí-Eskolapioak	1-4
Tolargi-Goierri	1-2

Saillkapena**1. Tolosala Hirukide Ikastetxea**

	33p.
2. Tolargi	25p.
3. Isu Leihoak	25p.
9. Eskolapioak	15p.

FUTBOLA**ERREGIONAL OHOREZKOA****15. jardunaldia**

Tolosa-Mondragon	4-0
------------------	-----

Saillkapena

1. Anaitasuna	32p.
2. Berio	31p.
3. Tolosa	28p.

ERREGIONAL**PREFERENTEA****14. jardunaldia****Lehen taldea**

Ostadar-Tolosa B	0-2
------------------	-----

Saillkapena

1. Touring	32p.
2. Ostadar	31p.
3. Tolosa B	29p.

Bigarren taldea

Intxurre-Amaikak Bat	5-1
----------------------	-----

Saillkapena

1. Soraluze	26p.
2. Lagun Onak	26p.
3. Ordizia	24p.
16. Intxurre	11p.

SASKIBALOIA**11. jardunaldia****Bidebide Ibiza**

ES Velaz	79
	27

Saillkapena

1. Bide Bide Ibiza	9-2
2. Goierri Verkol	8-3
3. Santurtzi	7-4

TENISA**ESPAINIAKO TXAPELKETA****Finalerdiak**

Lara Arruabarrena	1	2
Silvia Soler	6	6

Ibarrak ezustekoa emanda

Euskal Herriko Sokatira

Txapelketa irabazi du

Goma gaineko 4X4ko proban, 260 kilotan, kitarako lehia jokatu behar izan dute Ibarra A eta Badaiotz B taldeek

Asier Imaz Ibarra

Ibarrak Euskal Herriko Sokatira Txapelketa irabazi zuen larunbatean, Arrankudiagan. 260 kiloko mailan, 4X4 goma gainekoan, ezustekoa eman zuen Ibarra nesken A taldeak.

Bi kanporaketa jokatu ostean, finalera laugarren postuan sailkatu zen Ibarra A. Badaiotz jaun eta jabe izan zen finalurreko horietan. Txapela euren izango zela zirudien, baina egun erabakigarrian, Ibarrak eta Badaiotzek



Ibarra A taldea Euskal Herriko Txapelketaren finalean. HITZA

berdindurik amaitu zuten, 13 punturekin. Finala nork irabaziko zuen jakiteko, beraz, kitarakoa jokatu behar izan zuten. Hemen, ibartarrek irabazi zituzten bi tiraldiak. Nesken bigarren taldea, bosgarren postuan gelditu zen.

Arrankudiagan mutilen 300 kiloko txapelketaren finala ere jokatu zen. Kasu honetan, Ibarra ordezkari bakarrarekin iritsi zen azken jardunaldi honetara, eta bosgarren postuarekin itzuli ziren etxera.

Markagailuari itzulua eman

ondoren, zazpigarrena etxera

Patxi Zeberio eta Ionek irabazi dute binakako erremonte txapelketaren finala, 40-38ko emaitzarekin

A. Imaz Elduain

Binakako erremonte txapelketaren finala jokatu zen larunbatean Galarretan. Zeberio II.ak eta Ionek 40-38 irabazi zieten Juaristi-Lizasori. Partida gogorra eta lehiatua izan zen, eta galtzaileak eskura eduki zuten txapela, ia partida osoan aurretik ibili baitziren. Azken txanpan, ordea, Patxi Zeberio eta Ionek garaipena lortu zuten markagailua irauli ostean.



Patxi Zeberio binakako txapelketa irabazi ostean. MAIALEN ANDRES

Elduaindarrak zortzigarren finala zuen larunbatekoa, eta garai-penarekin zazpigarren txapela eraman zuen etxera. Amaieran, Zeberio II.a «oso gustura» agertu zen, eta Ionen lana azpimarratu

nahi izan zuen, «izugarritzko partida jokatu baitu». Finala «oso gogorra» izan zela esan zuen elduaindarrak, eta markagailuan atzetik ibili zirenez, «ezin askatu-rik» ibili zela esan zuen.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

